



LEHIAKETA
EGUBERRIETAKO ERAKUSLEIHOAK
OINARRIAK

www.valledeegues.com

IZEN-EMATEA AZAROAREN 30A ARTE
ERAKUSLEIHO ONENENDAKO SARIAK



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGUES
EGUESBARKO
UDALA

EGUESIBARKO UDALAK LEHIAKETA HONEN DEIALDIA EGIN EGUESIBARKO MERKATARITZA, OSTALARITZA NAHIZ ZERBITZU ARLOKO SALTOKI GUZTIENTZAT.

1. HELBURUA



Eguesibarko Udalaren helburuetariko bat da Udalerriko saltokien dinamika bizkortzea. Ardatz hura kontuan harturik, lehiaketaren bosgarren deialdia egin dugu aurten. Helburua da gure merkataria motibatzea Eguberrietan beren erakusleihoak eta lokalak erakargarriago jar ditzaten.

2. IZEN-EMATEA



2019ko azaroaren 30a arte ematen ahalko da izena www.valledegues.com webgunean

Izena ematean, honako datu hauek eman behar dira nahitaez: ESTABLEZIMENDUAREN TITULARRAREN IZENA, ESTABLEZIMENDU PARTE-HARTZAILEAREN IZENA, IFZ/NAN, HELBIDEA, PK, TELEFONOA ETA E-MAILA. Zalantzak argitzeko: Tokiko Garapen eta Enpleguko teknikaria, Eguesibarko Udala

desarrollolocal.tokigarapena@egues.es

3. ERAKUSTALDIA



Erakusleihoak 2019ko abenduaren 10etik 2020ko urtarrilaren 7a arteraino egon beharko dira erakusgai.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK



Eguesibarko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanik dauden establezimendu erakusleihodun guztiek parte hartzen ahalko dute.

Kanpo-erakusleihorik ez duten establezimenduek parte hartzen ahalko dute, baldin eta beren lokaleko espazio bat aldi honetarako apaintzen badute, barneko erakusleihoaren modukoa, epai-mahaiaik argi eta garbi identifikatu beharko duena.

Establezimenduak erakusleiho bat baino gehiago badu, bat bakarra aurkezten ahalko du lehiaketan.

Saltoki guztiek parte hartzen dutela egiaztatu beharko dute, antolatzaileek emanen dieten ikurra agerian jarriz. Ikur hori ez badago, edo hura aurkitzeko zailtasunak nahita jartzen badira, saltoki hura lehiaketatik kanpo geldituko da.

5. BALORAZIOA



Hona hemen erakusleihorik onenarendako nahiz saltokirik onenarendako sariak emateko balorazio irizpideak:

GEHIENEZ PUNTU

ORIGINALTASUNA ETA BERRIKUNTZA 5

Ideiaren bere osoan

MUNTAKETA ETA AUKERAKETA 5

Erakusketa eta apainketa gaien diseinua

ARGIZTAPENAREN DISEINUA 3

eraginkortasuna eta jasangarritasuna

ERAKUTSITAKO INFORMAZIOAREN

ARGITASUNA 3

kartelak, prezioak, etab.

ERAKUSGAI JARRITAKO

PROIEKTUAREN GARBITASUNA 4

Txukuntasuna eta egokitasuna

6. EPAIMAHAI



Sektoreko hainbat espezialistak eta profesionalek osatuko dute epaimahaia. Tokiko garapeneko teknikaria izan da idazkari, hizpidea duela baina botorik gabe. Epaimahaikideek saltokiak bisatuko dituzte balorazioa egiteko, eta beren irizpideekin bat, egokitzat jotzen dituzten sariak eman dituzte. Sariak eman gabe gera daitezke, epaimahaikideek halaxe erabakitzen badute.

7. HERRITARREN PARTAIDETZA



16 urtetik gorako Eguesibarko auzokide errolatu guztiak izanen dute bozkatzeko eskubidea.

Bozketa abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra egingen da.

Herri bozketak bide hauetako bat erabiliz egingen dira:

ONLINE: www.valledeegues.es

webgunean zintzilikaturiko inkesta baten bidez: Udalak CAFen eta liburutegietan dauden ordenagailuak jarriko ditu jendearen eskura botoa mateko.

AURREZ AURRE

Postontzietan. Toki hauetan daude: CAFen eta liburutegian (Sarriguren eta Olatz), eta Udaletxean.

HIRU PROPOSAMEN

- Herri bozketan parte hartzen duen pertsona bakoitzak hiru proposamen bozkatu beharko ditu; zehazki, 3, 2 eta 1 puntu emanen ditu lehentasunaren arabera hurrenkeran. Puntu gehien dituen proposamenak irabaziko du.
- Ez dira zenbatuko hiru proposamenak bozkatu ez diren bozketak.
- Pertsona batek gehienez aldi batez eman dezake botoa.

50 euroko 5 erosketa-txartel zozketatu dira herri bozketan parte hartzen duten guztien artean, lehiaketan aurkezten diren establezimenduetan trukatzeko.

*Lehiatzen diren saltokietako titularrek ezin izanen dute parte hartu

8. SARIAK



Sari hauek emanen dira:

(ZERGAK ORDAINDU ONDOREN)

EPAIMAHAIAREN LEHEN SARIA 1.000 €

Lehiaketaren oroigarria eta

EPAIMAHAIAREN BIGARREN SARIA 700 €

Lehiaketaren oroigarria

EPAIMAHAIAREN HIRUGARREN SARIA 500 €

Lehiaketaren oroigarria

PUBLIKOAREN SARI BEREZIA 300 €

lehiaketaren oroigarria

Saria herri bozketak erabakiko du, eta epaimahaia saritutako saltokiren bat izan liteke.

Udalak, bestalde, establezimenduak kanpotik apaintzeko erraztasunak emanen dizkie saltoki parte-hartzaileei, establezimendu lehiakideen irudi bateratu eta bereizgarri bat lortze aldera.

Saltoki parte-hartzaile guztiak bere negozioa sustatzeko bideo bat jasoko dute. Bideoa Eguesibarko Udalak egingen du.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da. Urtarrilean emanen zaie saridunei erabakiaren berri eta urtarrilean ere argitaratuko da, sariak banatzeko ekitaldian. Saioa Eguesibarko Udaletxean egingen da (eguna eta ordua zehaztuko dira).

9. ONARPENA



Eguesibarko Erakusleihen V. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, oinarri hauek guztiak onartu behar dira.

”Lekuz kanpoko objektuak ezkututzen dituzten erakusleihoak” izeneko jarduera garatzeko, saltokiek beren objektu bat eman beharko diete antolatzaileei, lehiatzen den beste saltoki batean “ezkutuan jartzeko”.